

Txina-sobietarren muga

Zeruko Argia.

J.P. Brule'k *EH* aldizkariaren 189'garren alean idatzi duana ("La frontière sino-sovietique") U'tar M'ek laburtua ta euskeratua.

Noiz nai lortzen dira txinar eta sobietarren arteko muga arazoen berriak. Ez da oraingoa. ba dira iru gizaldi orretan dabiltzala. Berritasuna onetan dago: arazo txikiei mundu-zabaleko garrantzi larri au ematen ari dirala. Sobietarrak lengo "arrixko oria" ren mamua berpixtu dute, ta txinarrak, berriz, Errusi'ko uriko "zar" inperialistak. Eta gauzak orrela daudela, askotan galdetzen gera bi estadu oien artean gudarik sortuko ote dan. Ikusi dezagun gauzak nola datozen.

Atzo

Txinarrak diotena da: aspaldi bere agintariak eta Errusi'kok erabaki zituzten mugak errusitarren indar-bidez leporatuak izan dirala, ta ez dutela gaurkotasunik. Txina'ko buruzagi Lin Piao'k esan duan bezala: "Orduko zar inperialista lur-zabal asko kendu zizkiguten, eta Marx eta Lenin'ek berak ere gai onetaz bere asarreak erakutsi zituzten; 1920'an sobietarrak agindu zuten berak nagusitu baño lenago indarkerian egindako itzarmenak (tratadoak) ezereztukoi dituztela" (Txina'ko komunisten Batzar Nagusia, 1969). Ori esan bai sobietarrak, egin ez ordea.

Noizko lapurretak dira oiek?

Orain dala lau bat gizaldi, XVI'garrenean, igaro zuten errusitarrak lenengoz Txina'ren muga; kosakoak Amon ibaia bereganatu zuten. Gero, eurroparrekin egin zuten lenengo itzarmena (tratadua) 1689'an izenpetu zuten, eta errusitarrekin izan zan; arrezkerotik dator bi enperio oien mugaratzea. Itzarmen au izenpetua egon izan arren. XIX'garrenean mantxuriarren dinastia oso auldua zegoalarik (ta inglandarren gaizkidetasunarekin) Romanov'ek agintzen zituzten errusitarrak sartu ziran Txina zear lapurretarako; ogei urtean, errusitarrak 2 milloi kilometro lauki (kuadratu) berenganatu zituzten! Gero, komunistak berak gose berdiñekin Tannu Tuva deritzaion lurralde osoa artu zuten, Ingalterra osoa añeko lurra, ta orretzaz gañera Mongolia kendu zion Txinari ta gezurrezko askatasuna eman zion (1945), egi-egitaz Errusi'ko menpean baitago. Ala, txinar eta sobietarrak elkarrekin dituzten mugako 10.000 kilometro oietan ez daude bata bestearen aurrean, erdiko edo tarteko erri batzuek bitartez baizik; 5.000 kilometro mugan Kanpoko Mongolia'ren erria dago, ta gañentzekoetan beste errietakoak: uigurtarrak, mantxutarrak eta barruko mongoltarrak batez ere; erri oiek askatasuna bear luteke, Afganistan'ek daukan ainbeste eskubiderekin bai noski; ala, Asia erdian beste erri

oien estadiak osatu bear lirake, ta gertakera au Lenin'ek (Txinar ta Sobietarrek beren zuzendari bezela aitortzen duten Lenin berak) oiuka esandakoa da.

Errusia: 1593'en 3 milloi kilometroko estadia zan; geroko lapurretekin 17 milloikoa izatera eldu zan 1900'ean, eta 1945'an, bigarren guda nagusia bukatzerakoan, beste 5 milloi kilometrora iritxi zan. Ez zaie, beraz, komunista gorriei, lengo errusitar txurien goserik joan! Lur zabal orretan bizi dira gaur %55 errusitar, %18 ukraniar, %4 bielorrusitar eta %23 beste endako jendea. Errusitarrek egin dituzte alegiñak erri oietan bere jendea nastutzeko, ta bere izkuntza administrazioan eta teknikan ofizialki sartzeko; bañan ari zaio kostatzen. Txina'ko 800 milloi biztanle, berriz, 9,50 milloi kilometroan bizi dira, ta beste errietako jende gutxi dute berekin: %6 bakarrik; ontan, ba, errusitarrek baño obeto daude, ta sobietarrek azpian dauden erri oietan askatasuna gogoak sortu naiean dabilta, errusitarrek kolonialistak dirala esanaz.

Gaur

Zer nai dute txinarrak?

Alkar-izketak sortu, Errusia berekin mai batera ekarri. Ta bitartean gauzak dauden bezela utzi, al dala muga-arazorik sortu gabe. Beste bere bizi-lagunekin itzarmenak (trataduak) egin dituzte: Birmania (1960), Nepal (1961), Kanpoko Mongolia (1962), Pakistan (1963) ta Afganistan (1963); ala, sobietarrekin dituzten mugak bakarrik daude gaurkotu bearrak. Txinarrak nai dute Errusitarrek amor ematea, ta lurak biurtzen ez ba dizkie ere, beintzat muga oiek egi-egitakoak ez dirala aitortzea. Ez da asko. Bañan errusitarrek ez daude (komunista izan eta guzti, anai-proletario izan eta guzti, muga gabeko ludi baten billa dijoazela esan eta guzti, muga oietzaz itz egiterik ere.

Mosku-Pekin'ek 1950-ean artu zuten *betiko adiskidetasunaren* erabakiak ez diete amar ute besterik iraun; 1960'an Mosku'k Txina'k zeuden tekniko guziei etxera deitu ta ematen ari zan diru ta zientzi ta teknika laguntza guziak kendu zizkan. Arrezkero, Amur ibaieko muga, ofizialki "Adiskidetasunaren Ibaia" deitzeko erabakia artu zuten ibai-muga, da gaur bi inperio oien alkartasunaren giro-neurririk onena. Amar urtean 7.000 muga-arazo izan dituzte! Pekin'ek arazo onekin barrengo gose ta politika arazoak ito nai ditu; ta Mosku'k, berriz, aitzeki onekin ari da 16 urteko gazteak guda-gizonen eskuetan jartzen, eta Europako errien eta Ukraina'koaren askatasun-naiak indarrez ixiltzeko argumentuak lortzen, eta Europa'ko beste erri-sateliteen aurrean "Arrixku oria"ren mamua ikaragarri bezela azaltzen.

Komunistak, orduan, lengo inperialisten lur eta jende-goseak, aginte-goseak, berekin dituzte oraindik.

Biar

Ez dira asarre dabilta, baño ideolojiz anai diran, oiek alkarren aurkako burruka gogorrean asiko. Errusia'k aurrez agertu duan bezela, orrelako bat gertatuko balitz ez da kontinente bat ondatu gabe geratuko (Ipar-Amerika'ri su orreri ikatz geiago botatzeak

ekarriko lizkiokenak aurrez agertu naiean, noski). Sobietarrak ba dakite ondo berak jartzen lagundu dituzten Txina'ko nuklear-indarreko suzko'ziriak (kostek) nun dauden; ta txinarrak ere Baikonur'eko suzko-zirien garrantzi aundiko bota-lekua bere mende dauke, ta Albania'n Txina'k jarri dituan sei bota-lekuak Mosku, Kiev, Berlin, Barsobi ta Budapest bere mende daude.

Ez du ematen, ba, Txinar eta Sobietarren artean gudarik sortuko danik.